



BIZKAIA



Santi Urrutia

Zorabioa itsas gainean

BEGIEN aurrean genuen kobazuloa, Ogoñoako labarraren erdian; egia zen, beraz, Bermeoko arrantzaleek kontaktzen zutena. Ordura arte zalantza handiak genituen ea benetakoia izango ote zen haiek Laga eta Elantxobe bitarteko labar luzeaz aipatzen zuten kontu bitxi hura, *kuebie dau, eta bertan eskeitxe jamoyek eta txorizuk*.¹ Orain bagenekien egiazkoa zela, haitzuloa benetan ikusgarria zen, nahiz eta haiek irudikaturiko *jamoi* edo pernilak kobaren sabaitik zintzilik zeuden estalakitak izan.

1988ko urtea zen kontu hura entzun genuen lehen aldia. Horren jakin-minez, Julen Munitis gernikarraren txalupan abiatu ginen tontorrari buelta ematera. Mundakako portutik irtenda Izaroko irlaren ondotik joan ginen, eta handik zuzen Ogoñoako hormarantz, jendez betetako Lagako hondartzaren aurretik igaro ondoren. Berehala, hondartza horretatik jendeak ikusi ohi duen Ogoñoako horma nagusiaren parera iritsi ginen. Handik

¹ Hemen jasotzen da kontakizun hori: Barrutia, Eneko (1996): *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 290. or.

aurrera agertuko zitzaiguna guztiz ezezaguna izango zen guretzat, ez baikenuen Ogoñoako *kaboa* itsasoko aldetik inoiz ere ikusi.

Ostera, Ogoñoako beste bazter batzuk ondo ezagutzen genituen: Lagara begira dagoen horma eskalaten ibiltzen ziren espeleologia taldeko zenbait kide, eta tontorrean, *Atxurkulu* deitzen den lekuan, hango sakostan dauden zuloak esploratzen ibiliak ginen. «Baietz hemendik itsasoraino heldu!», esaten genuen “urkulu” hartako leizerik sakonena esploratzera joan ginenean. Baina, laster utzi behar izan genuen alde batera burutazioa, 30 bat metro inguru jaitsi ondoren zuloaren hondora helduta. Elantxobeko zaharrek

han *lamiñakuak* bizi zirela kontatu zioten Jose Migel Barandiaran antropologoari, bekokian begi bakarra zuten erdi lamia erdi ziklope ziren izakiak.² Zorionez, gure esplorazioetan ez genuen halakoekin topo egin, baina bermeotar arrantzaleen kontua entzutean, labarreko kobazuloan pernilak eskegitzen zituztenak *lamiñakuak* izango ote ziren esaten genuen.

Gogoeta hauekin genbiltzan txalupan Ogoñoopera hurbilduta horma nagusiaren muturra igarotzen hasi ginenean. Labar izugarri hura zuzenean sartzen zen uretan, sakon, eta hormapean zabalduetako zulo handiak agertzen hasi ziren. ¿Haietakoren bat izango ote zen arrantzaleek aipatutakoa? Baina haiek ez zeuden



Santi Urrutia Izagirre. Errigoiti, 1960. Soziologiako irakaslea UPV/EHU. Gernikako ADES espeleologia taldearekin aritu izan da esplorazio lanetan 1983tik hona. Euskal Espeleologoaren Elkargoak antolatutako nazioarteko espedizioetan parte hartu du. Britainiar espeleologoek Kantabrian antolatzen duten *British Expedition to Matienzo* elkartarekin ibiltzen da. Espeleologiarekin lotutako idazlanak, dokumentalak eta film laburrak egin ditu, haietako hainbat lehiaketa eta festibaletan saritua.

² Barandiaran, J.M. eta besteak (1972): *El mundo en la mente popular vasca*, Colección Auñamendi, 18. zkia, Donostia, 56 eta 67. or.



■ Ogoñoiko labar itzelaren erdian dago koba

ARGAZKIA AIDES

labarraren erdian, itsasoaren altueran baizik. Izan ere, bagenuen arrantzaleen kontuari buruzko zalantzarik. Besterik ez bazen, uraren nibekeko haizpe haiek ere esploratzeko modukoak izan zitezkeen, baina haien barruan abiatzea ez zen izango txantxetako gauza. Lehen eta behin, itsasoak bare-bare egon beharko zuten, Ogoñoan oso gutxitan gertatzen dena, eta itsasbeheran joan, ura gorantz hasi orduko handik irteteko ardura izanda. Edo bestela urpeko ekipoaz, espeleologia taldeko Rober Garayk 1987an Elantxobetik hurbil dagoen urpeko kobazulo bat esploratu zuenean bezala: itsasoa erabat bare, *kalma zurian* zegoen egun batean arnasteko bonbona hartu zuten, eta 80 metro inguruko galerian zehar joan zen Iñaki Arrieta lagunarekin, azkenean ur gainetik zegoen burbuila batera iritsi arte.


Horrelako komentarioen artean igaro genuen muturra, eta zati batean norabide berean joan ginen, halako batean haitzak ekialderako bira egin arte. Orduan ia kilometroa luzerako labar basatia, guztiz bertikala, agertu zitzaigun. Urrun, labarraren amaieran, itsasora erortzen zen haitzezko arku bat ikusten zen, Elantxobeko arrantzaleek *mandarik mandako zillue* deitzen dutena, hau da, haizpean bandarik banda edo alde batetik besterako pasabidea duen zuloa. Ikusgarria zen harainoko bitarte luzean zabaltzen zen horma garaia. Han nonbait ote zegoen ezkutatuta bermeotarrek aipatzen zuten koba?

Denboratxo bat generaman hango tolesdurretan begiak finko genituela. Une batetik aurrera labarraren goiko alde behea baino irtenagoa zela nabari zen, eta gutxien uste genuenean espeleologo batentzako irudi ia sinestezina agertu zen. Labarraren erdia baino gorago, itsasotik oso garai, baina gainaldetik ere distantzia handian, kobazuloa zegoen. Aho zabala zeukan, behetik ikusten genuela ere nabaritzen zen koba sarrera hura benetan handia zela, pertsona batek geriza oso txikia egin behar zuten hango atarian. Irudi zirraragarria zen, Bermeoko arrantzaleek ez zituzten beren kontakizunak alferrik asmatu. Zer egongo ote zen labar erdian eskegitako haitzulo haren iluntasunean gordeta?

Fantasiatzko haitzulo hartara heldu behar genuela nola edo hala pentsatzen hasi nintzen. Edonola ere, argi zegoen ez zela erraza izango, kobazuloa labarrak balkoirik handiena egiten zuen parajeen baitzegoen. Azpitik gora eskalatzeari ekitea zorakeria hutsa izan zitekeen. Itsasoko olatuek etengabe jotzen zuten haitz labainean hasi beharko zen eskalatzeko, eta *extraplomoa* zeukan horman ekin beharko zen gorantz, gutxienez 60 metro igoaz kobaren ahora heldu arte. Logikoagoa zirudien goitik behera jaistea, baina koba beraren paretik zuzen egin beharrean —horrela sokatik urrun geratuko baitzen— ezkerreagoko gainaldetik jaitsiaz. Han, hormaren gainaldeak irtena barik bertikalagoa ematen zuten, eta gutxi gora behera labar



MAPAS NORDIK



■ Zorabioa itsas gainean

ARGAZKIA AIDES

erdiraino jaitsi ondoren, agian zeharkaldi horizontala egin zitekeen eskuinerantz, kobaraino heltzeko.

Bidaia hartatik bueltan, ezin nuen burutik kendu eskegitako koba harrigarri haren ikuspegia. Hara joan beharra zegoen, zer ote zegoen han barruan gordeta, itsasoko jendeak ez beste inork ikusi gabeko leku hartan?

1989ko udaberria heldu zen ahalegin horretan ekiten hasi arte. Espeleologia taldean inor gutxi zegoen orduan halako zereginean sartzeko prest, eta neskalaguna, Zutoia, konbentzitu nuen. Lehen eta behin, egun oso bat igaro genuen Elantxobeko herri ondoan hasita Ogoñoako lautadako haitz-errean artadia zeharkatzen, aihotzaz sasiak ebakitzen bide-zidorra egiteko. Behin labar gainera heldu ginenean amildegia ertzetik jarraitu genuen bidea egiten. Zaila zen kalkulatzeko zein puntu izan zitekeen txalupatik ikusitako gaina. Hegal hartan joan-etorri batzuk egin ondoren, eta *mandarik mandako zillue* erreferentziatzen hartuta, jaisten hasteko zein izan zitekeen puntu egokia erabaki genuen.

Astea prestakuntzetan eman ondoren hurrengo asteburuan itzuli ginen hara. Ilun zegoen zerua. Labar ondolik gindoazen bidezidorrean, artadi barruan urruma berezia entzuten hasi ginenean. Hurbildu ahala, aldizkako urruma hura gero eta indartsuagoa zen. Nabaritzen zen zuhaitzak


mugitzen zirela eta lurrin txorroa irteten zela nonbaitetik. Orduan konturatu ginen itsasoraino zihoan zuloa edo zirrikitua egon behar zela han. Olatuek jotzen zuten bakoitzean bertako haize guztia mugitzen zuten indartsu, ehun metroko tximinia batean bezala. Hura izan zen Ogoñoako haitz-errean aurkitu genuen lehenengo *puzka dabilen zuloa*; geroago aurkituko genituen halako gehiago. Baina gure ardura hau zen, hain gaizto ote zebilen itsasoa?

Erantzuna, labar-burura heldu ginenean jaso genuen. Hango ikuspegia ikaragarria zen. Olatuen orro amaigabeak entzuten ziren, azpiko haitzetan etengabe jotzen ari zirenak, haien kontra egin eta gorantz bits zuri bihurtuz. Gogoa behar zen halako panoramarekin beherantz egiten hasteko. Nahiz eta leizeetako amildegi beltz itzelak jaisten ohituta egon, hura guztiz bestelako giroa zen, eta erabat txundituta geunden olatuen zarata haien artean. Horma hartako erlaitzetan habiak zituzten kaioen oihuak, gure paretik pasatzen zirenean entzuten genituen justu-justuan. *Mandarik mandako zilluaren* arku gainean, olatuen joalditik babesturik, bilduta zeuden ubarroiak; ez zen hura arrantzan egiteko egun ona haientzat ere. Kostatu zitzaigun erabakitzea baina, soka arte bati lotuta horman beharantz hasi ginen, itsasoko haize gaziak inguratutik. Labarraren altueraren erdia kalkulatu ondoren, tornu bat sartu horman eta horizontalean soka jartzen hasi besterik ez ginen egin; nahikoa zen egun hartarako. Konturatu ginen kobazulo handira heltzea ez zela abentura makala izango.

Berriro ausartu ginen hurrengo larunbatean. Zorionez, itsasoa lasaiago zegoen, eta Kantauriko argitasun handiak hartu gintuen. Soka horizontalean ipintzen jarraitu genuen, apurka-apurka metroak irabazten joateko. Une batera helduta, horma barrurantz sartzen zen, txapelaren itxura hartzen zuen haitzak. Gure oinpean hutsune beldurgarria igarri genuen, balkoi baten muturrean eskegita egotean bezala. Handik aurrera ekiteko eskalatzaile trebe baten tenplea eta abilezia behar ziren.

Eta hori bakarrik hauxe izan zitekeen:

■ *Kantauri itsasoa koba barrutik*



■ *Armiarma baten moduan zintzilik*

Jose Luis Urzuriaga, 'Pepe' izenez ezagutzen genuen taldekide eskalatzailea, geroago, 1994an Khan Tengri mendian desagertuko zena Josu Garcia Elorriaga mundakarrarekin batera. Garai hartan, Pepe Lagako labar nagusian ibiltzen zen eskalatzen, eta gurekin egun batean beste aldeko labarrera joateko "enbarkatu" genuen. Soka horizontalean amaierara helduta beherantz joan zen Pepe, ikusten ez genuen tokira. Gerotxoago nekez entzungo genituen bere oihuak ere, soka luzatzeko eskatzen zuenean. Nola edo hala han jarraitu zuen laratroaz zuloak egiten eta tornuak sartzen. Denbora luzea igaro ondoren, bueltan etorri zen, eta albiste bitxia ekarri zigun: eskaladako zeharbidean "bilgunea" egiteko leku ona aurkitu zuela, aterpe bat, eta soka haraino jarrita zegoela. Handik kobazuloraino sokaren beste *luze* bat geratzen omen zen, 50 metro inguruko eskalada. Suspense handiaz utzi gintuen nolako aterpea aurkitu ote zuen irudikatu ezinik.

Han ginen Zutoia eta biok hurrengo larunbatean. Aterpera heltzeko horman barrurantz egin behar zen txapelaren azpitik joanda, zorabiozko ibilbidea, oinpean urrun olatuek haitza jotzen zutelara. Heldu ginenean, sorpresa handia hartu genuen, hura benetako haizpe bat zen, sarreran 7 metroko altuera eta hiru metroko zabalera zuen, eta uste baino sakonagoa zen, —nahiz eta Pepek, soilik "bilgunea" egiteko bestekoa zela esan—. Berehala hasi ginen ea haizpeak zirrikituen bat zuen arakatzeko, eta albo batean ia ezkutaturik zegoen katzulotik abiatu ginen. Iluntasun osoan pasabideak gorantz egiten zuen estu-estu, aurrerago berriro behera egiteko, eta bat-batean gela batera heldu ginen. Gure harridura handia izan zen han aurkitu genuenarekin: gelako baztertxoetan elai edo enara antzeko txoriak zeuden, baina handiagoak, arrautza bana berotzen. Ez ziren ihesean saiatzeko, han zeuden geldigeldi, gu bezain harrituta baleude bezala. Berehala igarri genuen haiek ez zirela elaiak, haiek itsastarrak ziren, beren hanka palmipedoek horixe adierazten baitzuten.



ARGAZKIA ADES



ARGAZKIA ADES


Nolako lekuan zeuden jabetzen hasi ginenean, gauza batek harritu gintuen gehien: nola konpontzen ziren txori haiek iluntasun erabatekoan ibiltzeko eta han zeuden zokorik ezkutuenera joateko, bakoitza bere habiara? Ordura arte, guk genekienez, bakarrik saguzarrak ziren hori egiteko gai.

Handik bueltan ginela, Urdaibaiko guarda eta ornitologoa den Aitor Galarzarekin bildu ginen, eta aurkikuntzaren berri eman. Justu garai hartan Urdaibaiko hegaztiei buruzko liburua prestatzen ari zen, eta izugarritzko poza hartu zuen hura gazteleraz *paiño* deitzen dioten itsastxoria izan zitekeela konturatu zenean. Ordura arte Urdaibain hegazti horien kolonia bat izan zitekeen susmoa besterik ez zeukan, eta orain datu zehatzak jaso ahalko zituen. Gerorantz aurkikuntza harrigarriagoa bilakatu zen, izan ere kolonia hau baita munduan kostalde kontinentalean ezagutzen den bakarra, beste guztiak itsas erdiko haitzetan egonik. Nahiz eta kostaldean ia inoiz ere ez diren ikusten, arrantzaleentzat hegazti ezagunak dira, noizean behin ontzietara hurbiltzen direlako; ekaitza datorren seinale omen dira. Lekeitioko arrantzaleek *matxiplakak* deitzen diete, eta bermeotarrek, aldiz, *millabarrikak*.

Pozik geunden, beraz, egindako aurkikuntza bitxiak. Baina, labar hartara deitu gintuen erreklamo nagusia, kobazulo handia, han zegoen oraindik itzaroten. Beste urte bi igaroko ziren horretan berriro saiatu baino lehen. 1991ko udaberrian, berriz ere Zutoiarekin abiatu nintzen Ogoñoko labarrera, ideia bat buruan nuela: kobazulo handiaren paretik goitik behera eskegi, eta argazkiak atera, hara heltzeko zailtasunak zeintzuk ziren kalkulatzeko eta eskalada egiteko biderik egokiena zein izan zitekeen aztertzeko. Horrela, zorabio hutsezko

jaistea egin nuen kobazuloaren paretik, haren altuerara heldu arte. Dozena bat metrotara aurrez aurre geratzen zitzaidan haren sarrera; oinpean, lekutan, itsasoko olatuek jotzen zuten haitzean. Argazki multzoa atera nuen, *matxiplakak* kobatik haitzulo handira zegoen tartea ahal zenik eta ondoen islatzeko.

Ondoren, diapositiben erakusketa antolatu genuen, taldekide guztiei erakusteko, eta, ahal zen neurrian, haiei hortzak zorrozteko. Helburua sobera bete zen espeleologia taldearen osteguneroko bilera hartan gertatu zenarekin. Pepe gero eta gehiago animatuz zihoan, diapositiba haiek erakutsi eta aztertu ahala, hara eskalatzeko tresna berriak hartuta joango zela zioen. Giro entusiasta sortu zen, Gotzon Aranzabal kideak are gehiago



ARGAZKIA ESPELEOMAGEN

■ Haitzulo eskegira jaisten

berotuko zuena: zera adierazi zuen, burdinazko kakoa edo aingura egingo zuela, soka batez lotu, eta hura kobazuloaren ahora jaurtikita sokari tiratuz iritsiko zela. «Badaude 12 metro inguru bertikaletik ahoraino», esaten genion, baina hark atzera egin ez, «baietz heldu Pepe baino lehenago kakoa erabilita», zioen. Horrela jarri zen martxan

bi adiskide zaharren arteko lehia, ea bietako zeinek ikusiko ote zuen lehenago Kantauri itsasoa *begi* handi haren barrutik.

Hurrengo larunbata, 1991ko ekainaren lehena, ADES taldearen historiara igaroko zen. Ordura arte inoiz baino kide gehiago bildu ginen Ogoñoko labar-buruan. Batzuk *matxiplakak* kobarako bidea hartu genuen, Peperi handik behar zuen laguntasuna emateko ahaleginean. Gerardo del Hoyok hartu zuen hari soka luzatzeko zeregina. Hau idatziko zuen geroago Pepek *Ziklopearen begia* izenburua jarri zion artikuluan:

“Gerardo ari zait soka luzatzen, lehen iltzea sartu dut, eta 20 metro inguruko arrakala batetik abiatu naiz; aurrerago *friend* bat jarri dut bide nahiko erosoan

aurrera egiteko, eta pozarren noa leku errazago batetik, baina kobaren ertzera hurbiltzean gauza ederto konplikatu zait. *Hatz-oskola* deitzen zaion burdina-punta batetik eskegitzen naiz adrenalina dariola, baina, zer demontre da goitik datorrena...?”³

Gotzon zen, bere itzala beherantz zetorren zeruaren kontra islatuz, harian eskegita dagoen armiarma bezala. Azkenean heldu zen koba ahoaren pareraino. Aingura prestatzen hasi zen, ahoraino jaurtiki eta han zerbaiti oratuta gera zedin. Lehen saioan aingurak ez zuen horma ukitu ere egin. Bigarrenean ere ez. Azkenean haitzaren ertz batean ezkutatu zitzaion, eta tinko geratu. Hau kontatuko zuen berak taldeko jardunaren txostenean idatzitako testuan:

“Ainguraren soka gogor jartzen da. Geldiro-geldiro noa hari tiratuta, oreka mantenduz, *begitik* gero eta hurbilago nago, metroz metro hurreritzen noa. Hiru metro falta dira, bi, bat... ¡heldu naiz! Ukitu dut haitza eskuaz!”⁴

Handik gutxira helduko zen Pepe ere, kobazuloaren ertzean dagoen sargune batetik. Ondoren, kaioen txiten artetik saiatur koba esploratu zuten. Ez zihoan urrun, bakarrik 30 metro inguru barrurantz, baina ziklopearen *begi* hartatik ikusten zen Kantauri itsasoaren ikuspegia hain zen zoragarria, non sobera merezi zuen hara heldu izanak. Handik aurrera, izen horrekin geratu da kobazuloa, *Kantauriko begia*, eta espeleologoaren artean ikono ezaguna bihurtu da, itsas gainean haitzulo batera heltzeko egin daitekeen jaisterik ikaragarriena daukalako. □

³ *Aldaba* aldizkaria (1994), 68. zkia, Gernika, 20-22 or.

⁴ ADES-en jardueren txostena, 1991, 39. or. Argitaratu gabea. q